

Ura ere neurriz

El Mundo del País Vasco, 1991-05-20.

Gehienetan ardoa aipatzen da neurriz edan behar dena bezala, eta urarekin nahasterik gabe!; bestalde, esnearekin ere badu urak zerikusirik, askotan neurriz kanpo ere eransten baitiote. Baina gaur ez dakit ura ardoarekin eta esnearekin duen zerikusia; mundu osoa dago urez gainezka Bangladeshetik hasi eta Zadorrako urtegiraino!

Euskal herrian igaz izan genituen lehortearen kitagarri bezala aurtengo uholdeak, eta Bangladeshen, zer? Eta hemen ere neurria nahi.

Baina, neurria non gero? Mundu zabalean? Europan, Ekialdekoan bakarrik? Sovietar Batasunean, Errusian? Estatu bakoitzean, Herriz-Herri? Non dago neurria jartzeko luze-zabalerako eredia? Sakonerakoa kontuan hartu gabe.

Gizartean, gizakia hartu behar genuke neurri, gutxienez. Eta hemen ere ez mundu osoaren arteko batez bestelakoa, zeren eta Iparraldeko herriak eta Hegoaldekoak osasunaren batez besteko egokia ematen badu ere, basamortuan lehorteko beroak itotakoak eta basoak nagusi direneko uholdeak itoak ematen duten batez bestekoak ez du inongo iturik berpiztuko.

Gizonak badaki aspaldi, mesura hauek erabiltzen dituen bera delako, justizia ezin dela modu honetara egin; hemen neurria, gizakia baino oraindik hobe, pertsona dela, pertsonak berekin daraman guztia kontuan harturik. Goitik beheraino, eskuinetik ezkereraino.

Garai bateko gizakiek ezagutzen ez zuten lurbarruan esne eta eztizko ibaiak asmatu zituzten, don Joxemiel Barandiaranek jaso dituen ipuinek erakusten duten bezala; baina lurrari tripak ateratzen aspaldi ari direnek ikusi dute ez dela hala; ez dira Ataungoak gaur mundu zabala deskubritzen ari direnak, eta hauek munduko bi polo inguruko izotzak ere salduko lituzkete: tropikoetan bizi diren aberatsoi, noski.

Eta denok joango ginatekela pikutara. Pikurik ere geratzen ez den honetan.